

ETXEKO LEIHOAK NATURAREN BEHATOKI

Iñaki Sanz-Azkue

Gizakia etxean sartu da, eta «bereak» ziren eremuak libre utzi ditu. Kaleak, lorategiak, hondartzak, mendiak... guztiak hutsik gelditu dira. Etxea kartzela gogorra dela-eta, leihoak eta balkoiak bihurtu dira bizitzaren behatoki, askatasunaren erresuma. Hala, egun gutxian gauza bereziak hasi gara sentitzen. Sekula ikusi gabekoak ikusten hasi gara.

Veneziako kanaleko ura garden-gardena dagoela esan digu Ane Irazabal kazetariak sare sozialen bidez. Isolamenduak ontzien joan-etorria eten du. Eta gizakiak alde egin duenean azaldu dira urteetan ikusi gabeko arrain taldetxoak kanaletan. Asturiaseko herri batean hartza paseoan ikusi omen dute gauez. Izurdeak portu handietan, basurdeak hiri erdian eta ahuntzak kaleetan barrena hiri eta herri ezberdinetan. Argazkiak eta irudiak nonahi.

Izan ere, Euskal Herriko herri askotan, goizean leihoak ireki eta motor soinua entzun beharrean, txori kantua entzuten hasi garaela ohartu gara. Hor daudela, alegia. Gure muturren aurrean izan ditugula beti, eta ez ditugula gaur arte entzun. Isolamenduan orain gaudela, baina orain arte ere nahikoa isolatuta bizi izan garaela pentsa liteke. Isolatutak gure mundu artifizialean.

Eta orain harrituta gaude. Eta ez da gutxiagorako. Goizeko txori festak ematen duen bizipoza ez duela-ko autoen joan-etorriak ematen. «Txori gehiago entzuten dut goizetan» edota «txori pila ari gara ikusten etxe inguruan» bezalako esaldiak ari gara entzuten aste amaieran. Izan ere, astebete pasa da dagoeneko isolamendua hasi genuenetik, eta astebete da, bertsolariak ez ezik, gure kaleak ere «ixolamenduan» sartu direla. Eta isiltasunean soinua hobeto entzuten denez, kanturik ahulenak ere belarrietara iritsi zaizkigu oztopo handirik gabe.

Hori horrela izateko faktore ezberdinak nahasten dira, ordea. Batetik, dudarik ez da, gizakiak sortzen duen zarataren azpialdean ezkututzen ziren kantuak gailendu egin direla, batez ere, goizeko orduetan. Bestetik, alabaina, kontuan izan behar da ere martxo amaieran gaudela dagoeneko, eta horrek zera adierazten du: hegaztien ugal garaia ere gainean dugula. Alegia, entzutekotan, orain hasten dela garai onena hegaztiak entzuteko.

Baina bada hirugarren faktore garrantzitsu bat ere hegaztien kantuak entzutea eta txoriak gehiago ikus-



Ahuntz bat Donostian egunotan. Natura ez da geratzen eta zirrikitu propioak topatzen ditu. Jon URBE | FOKU

tea eragiten duena: denbora. Alde batetik bestera korrika ibiltzeari utzi diogu halabeharrez, eta, halako batean, askatasunaren erresuman, leihoan geldirik gaudela, behaketak egiten hasi gara. Eta behatzen denean, normala den moduan, ordura arte ezkutuan izan direnak ikusten hasten gara.

IKERKETARAKO GAIA

Ukaezina dena da, ordea, naturak bere erritmoa daramala, eta behingoz konturatu beharko dugula guztionak diren eremuak jendez, soinu eta mugimenduz betetzeari uzten diogunean, naturak bere lekua berreskuratze joera

duela. Eta zer nahi duzue esatea... hori da naturak eman diezaguken berririk pozgarriena. Esperantza ematen duela-ko jakiteak gu egon ala ez, biziak aurrea joko duela.

Interesgarria litzateke, dudarik gabe, konfinamendu garai honetan naturak hartzen duen dinamika aztertzea. Al-datuko al dira jarrerak, ugalketa garai-ko eremuak eta hilkortasun tasak, esaterako, animalietan? Alegia, kaleko isiltasunak nola eragingo du hegaztien ugalketan? Euren artean hobeto entzungo direla dudarik ez dago. Horrek egingo al du ugalketa arrakastatsuagoa izatea, ala aurretik markatuak zituzten



bizi-eremuen berregituraketa bat? Edo-
ta, trafiko eskasi honek, nola eragingo
dio, esaterako, momentu honetan
ugalketa garai bete-betean dagoen apo-
arrunt iberiarrari? Izan ere, kontuan
izan, urtero-urtero garai honetan apo-
ak basotik ur eremuetara joaten direla
taldean ugaltzera, eta horrek, errepi-
deak zeharkatzean hilkortasun handia
eragiten duela.

KORONABIRUSA ETA BIODIBERTSITATEA

Isolamendua, ordea, ikertzaileentzat
ere bada, eta zaila suertatuko da antze-
ko ikerketarik egitea horretarako bai-
men berezirik eman ezean. Baina, zer-



Bilboko lorategi batean aste honetan
jasotako irudia. Patxadak eta denborak ere
laguntzen dute natura lasaiago behatzen.
Marisol RAMIREZ | FOKU

tarako egin gisa horretako ikerketarik?
Zertarako balio digu horrek?

Baimenduko didazue galdera horri
Koldo Garcia genetikan doktoreak
duela egun batzuk sare sozialetan ja-
rritako txio batekin erantzutea: «Su-
posatzen dut saguzarren birusak iker-
tzea zentzugabekeria bat bezala joko
zela, finantziazioa lortzea ezinezkoa
izango zela eta ‘zergatik ikertzen duzu
hori’ entzun beharko zutela ikerlari-
ek beren lana gaitzetsita. Ba, beno, begi-
ra... Beti ideia zoroen alde, ez baitaki-
gu noiz beharko ditugun».

Inguratzen gaituenaren barruan gau-
dela sinetsi ordez, inguratzen gaitue-

nak gurekin zerikusirik ez duela pen-
tsatzen dugun bitartean jai dugu. Ale-
gia, ez gaudela isolatuak (naturareki-
ko). Uste dut horrekin erantzunda
gelditzen dela galdera. Ezta?

Izan ere, “Journal of Experimental
Biology” bezalako aldizkari zientifikoe-
tan publikaturiko ikerketek, Johnson
eta Thieltges ikertzaileek idatzirikoak
kasu, biodibertsitate galeraren eta gai-
xotasunen zabalpenaren arteko erla-
zioaz hitz egiten dute. Alegia, gizakiak
bere inguruko biodibertsitatea suntsi-
tzeak erlazioa duela gaitzok gizakiaren
artean zabaltzearekin. Habitat natura-
len suntsiketak eta gizakiaren mugi-
kortasunaren emendatzeak gune jakin
batzuetan baino ez zeuden gaixotasu-
nak zabaltzea eragin du.

Eta horrek berriro ere hausnarketara
bultzatu beharko liguke, eta pentsarazi
zein garrantzitsua den instituzioek
biodibertsitateari eta inguruko faunari
eta florari buruzko ikerketak bultza-
tzea gure biodibertsitatea ezagutu eta
kontserba dezagun. Edo errealistak
izanda, gure biodibertsitatearen egoe-
ra hobe dezagun, agian kontserbatzea
ez delako nahikoa izango jada.

Horren garrantziaz jabetu beharko
luke ere gizarteak, alabaina. Baina kos-
ta egingo zaigulakoan nago, gurea be-
zalako gizarte urbano batean halakorik
barneratzea ez delako erraza izango.
Aspaldi galdu genuen naturarekin kon-
taktu zuzena, eta, EHUK eta Aranzadi
Zientzia Elkarteak egindako ikerketek
adierazten duten moduan, Euskal He-
rriko gazteek duten naturaren ezagu-
tza oso urria da jada. Badugu lana zien-
tzia eta biodibertsitateari buruzko
dibulgazioan, gaia gizartearen erdigu-
nera eraman nahi badugu.

BEHAKETA TRADIZIONALAZ


Biodibertsitatearen ikerketan eta di-
bulgazioan urteak daramatzan pertso-
na da Aranzadi Zientzia Elkarte-ko Al-

berto Gosa. Isolamendu egoera hone-
tan gertatzen ari denari buruzko ira-
kurketa egiteko garaian, garbi du natu-
rak bere lekua bilatuko duela zirrikitu
bat bilatzen duen momentuan. Gosa-
ren esanetan, «natura ez da geldirik
egoten. Gizakiak uste du dena bere
erritmora mugitzen dela, baina natu-
rak segundoero eta minutuero egiten
du aurrera». Ez da harritzen, beraz, ani-
maliak eremu urbanoetara gerturatze-
ko joera hartu dutela ikusita. «Izan ere,
gu iritsi aurretik zeuden animaliak eta
landareak orain bizi garen eremuetan.
Gizakia bera izan da bota edo desplaza-
tu dituen, bai eraikiaz, bai eguneroko-
tasunean sortzen dugun bizimodu ero
horren barruan dauden hainbat fakto-
reren erruz». Beraz, Gosaren ustez, ani-
maliek bizirauteko eta elikatzeko leku
berriak bilatzeko joera dutenez, liteke-
ena da aurretik ikusi ez ditugun ani-
maliak ikusten hastea pixkanaka.

Alberto Gosak, ordea, beste faktore
batez hitz egin du: behaketaz. «Egun
hauetan gizakia dagoeneko ia galdua
dagoen ikerketa metodologia zahar bat
ari da egiten: behaketa tradizionala
egiten du bere leihotik». Alegia, Gosa
ren ustez, gizarteak daraman erritmo-
ak behaketa tradizionala bere egunero-
kotasunetik atera du. Behaketa tradi-
zionalaren gakoa da, behatzailea leku
jakin batean kokatua gelditzen dela.
«Puntu jakin batean zentratzen du be-
girada, bizitza film bat balitz bezala pa-
satzen ikusteko». Behaketa pausatua
da eta jarraikortasun bat du, denbora
eskatzen duena eta kontzentrazioa.
Baina oso egokia da animalien jarre-
rak, harremanak, izaki bizidunen bizi
zikloak, bai eta ekosistemen eraldake-
tak aztertzeke. «Egungo gizarteak, or-
dea, dena azkar egitera bultzatzen gai-
tu. Mugituz goazen heinean behatzeko,
eta hori ez da posible. Gu mugitzen go-
azen heinean gure aurrekoak ere mugi-
tuz baitoaz, eta horrek distortsioa sor-
tzen du. Behatzearen ezintasuna. Eta
hala, behatzen ere ez dakigu jada».

BEHAKETAREN HEZKUNTZA

Eta agian isolamendu honek horretan
lagun diezaguke. Izan ere, pedagogo as-



Aita-semeak barrutik kanpora begira, Getarian. Jon URBE | FOKU

«Egun hauetan gizakia dagoeneko ia galdua dagoen ikerketa metodologia zahar bat ari da egiten: behaketa tradizionala bere leihotik. Puntu jakin batean zentratzen du begirada, bizitza film bat balitz bezala pasatzen ikusteko»

«Behaketa ez da soilik begiratzea. Aztertzea eta hausnartzea ere bada. Zergatiei buruzko galderak egitea da. Eta hori ere bada besteak beste, jakintzaren eta zientziaren oinarrian dagoena»

koren eskaera da eskoletan behaketari
garrantzia gehiago ematea. Lore
Erriondo pedagogian doktoreak ere ho-
rixerik bera azpimarratzen du: «Umeek
(eta baita helduek ere) behaketarako
momentuak behar dituzte. Modu pau-
satuan, lasaitasunean bizitzan eta in-
guruan gertatzen direnak ikusi eta az-
tertzeke uneak izatea. Hezkuntza jada
ez da soilik eskola. Modu kontziente-
an/inkontzientean, familian egiten du-
guna ere bada....».

Eta aipatzen du: «Behaketa ez da soi-
lik begiratzea. Aztertzea eta hausnar-
tzea ere bada. Zergatiei buruzko galde-
rak egitea da. Eta hori ere bada besteak
beste, jakintzaren eta zientziaren oina-
rrian dagoena. Finean, egun asko hitz
egiten da tolerantziaz, enpatiaz, eta
abar, baina sekula baino azkarrago bizi
gara, sekula baino informazio gehiago
dugu, baina ez dugu patxada nahikorik
horri buruz hausnartzeko. Introspek-
zioa da norbere buruaren behaketa egi-
tea, norbere burua ezagutzeko, eta hori
oso garrantzitsua da. Kontziente izate-
ko zer egiten dugun, zer pentsatzen du-
gun. Hurkoa ezagutzeko eta enpatia
izateko. Behaketa garrantzitsua da, bes-
teak zer egiten duen, nola jokatzen
duen jakiteko eta ulertzeko».

Eta etxeko isolamendu honek beha-
ketaren hezkuntza lantzeko balioko
duen galdetu diogunean, hala eran-
tzun du: «Jarrera da ezberdina. Badago
jende bat abiaduraren poderioz ahaztu
egin duena behatzea zer den. Kanpora
begiratzen duenean, soilik begiratzen
die arreta deitzen duten ideiei: kan-
tuak, txaloak, garrasiak, eta oso nabar-
menak diren ekintzak. Baina baliatu
beharko genuke patxada hau, egunero
begi bistan duguna behatzeko, eta erre-
paratzen ez diogunari denbora gehiago
eskaintzeko. Kaleak nola dauden anto-
latuta, etxe aurreko horma zein harri-
rekin dagoen egina, txorien kantuak
ezberdinak diren, zein ordutan kanta-
tzen duten, zein kolore duen zeruak...
mila gauza, hor daudenak, beti hor
daudenak, baina sekula begiratu ez di-
tugunak, aukerarik izan ez dugu-eta».

Behaketa pausatu hori oso arrunta
izan da aurreko belaunaldietan. «Gure

amak oraindik ere egiten du. Etxe pareko kaioak ezagutu egiten ditu. Badaki zein kaio jartzen den zein faroletan, eta nola jokatzeko duen bakoitzak. Atsotitzak, esaterako, bizitza behatzearen ondorioz sortuak dira. Behaketak errepikatzearen ondorioz etorriko dena aurreikusten laguntzen diguten esaldiak dira, azken finean».


ESPERANTZAREN LEIHOAN

Gurean ere ireki dugu gaur esperantzaren leihoa, eta txorien goizeko koroaz gozatzeko aukera izan dugu. Zozoak inoiz ez bezala aparkalekuko autoen gainean dabilta batetik bestera, eta horrek auzoko katu urbanoari harrapaketa saio batzuk egiteko aukera eman dio. Hobetu beharko du, ordea...

Sekula ez genuen horren gertu ikusi leihotik, eta gaur zapelatza hurbildu zaigu etxetik hamar metrora. Herriaren erdigunera. Kaioak lasai dabilta murrutan pausatzen, eta txolarreak asfalto gainean ugalketa garaiko dantzan.

Prismatikoak balkoi ondoko mahaitxoan utzi ditugu, eta gure tartetxoa hartzen dugu egunero buztangorriaren mugimenduei jarraitzeko. Baina ez pentsa erokeria hauek egiten dituen bakarrak garenik. Makina bat pertsona ari da zintzilikatzen sareetan etxetik bertatik ateratako hegaztien argazkiak eta bideoak. Jantokiak diseinatzeko ari da jendea txoriak etxera erakarri eta argazkiak egiteko. Pentsa, www.ornitho.eus atarian orain arte herriarrek mendi irteeratan-eta egiten zituzten behaketak jasotzen zituzten, eta aste honetan atal berezi bat jarri dute martxan "Aspertzeari aurre egin leihotik hegaztiak zentsatuz" esaldiarekin. Etxe inguruan zein hegazti ditugun behatu eta atarian sartzea proposatzen digute.

Lagun aditu batek mezua bidali dit: "Oraintxe Oñatiko gure etxe gainean bi sai zuri hegan". Hauek ere iritsi dira gurera. Eta Donostiatik sai arreak pasa omen dira. Lagunak galdezka ditut, etxe inguruan sekula ikusi gabeko hegaztiak ikusten ari direla, eta gure amak etxe pareko gereziandoaren le-



Lerroon gainean, herritar bat Oñatiko bere etxetik behaketa egiten prismatikoekin. Alboan, txoriak balkoi ingurura erakartzeko eta gertutik behatzeko sistema bat. Etxe-txolarre bat eta buztangorri ilun bat ikus daitezke.

Ander IZAGIRRE EGAÑA

hen lorea atzo atera zela esan zidan. Egunero zenbat lore irekiko diren kontatzeko asmoa omen du. 40 urte inguru etxe berean bizitzen, eta sekula ez du egin. Arbolaren behaketa tradizionala egiten ari da, modu pausatuan, japoniarrek gereziandoekin egiten duten moduan...

Gure etxe pareko lorategia ez dute moztuko ziur asko denbora batean. Ea hala den. Belarra hazten ari da eta landareak lorea botatzen. Egunero aldatzen da kolorea, aspaldiko partez. Horrek erakarriko ditu zomorroak, eta zomorroek hegaztiak. Belar luzean zozoak ibiltzeari utziko dio, eta karnabak azalduko dira

landa eremutik bertako landareen hazi bila, taldetxotan, tip-tip eginez. Biodibertsitate urbanoa, lagunok.

Ez dakit noiz arte jarraituko dugun isolatuta, baina ederra litzateke hau guztiaren ostean, sikiera, gure leihoen bestaldeko munduari begirunez behatuko bagenio.